2.- Que se haga un trabajo de planificación integral con vistas al futuro, para cubrir todas las necesidades: nuevas escuelas, infraestructuras necesarias, servicios a ofertar, así como las derivadas de la euskaldunización, el desarrollo del currículo propio y la autonomía de los centros.

3.- Una labor de planificación, priorizando el ciclo 0-3, y asegurando los itinerarios 0-18 necesarios.

4.- Que la Enseñanza Pública disponga de los medios necesarios, se incremente la dotación presupuestaria a los centros. Reconocer, de hecho, que la Escuela Pública Vasca es la nuestra, la única que garantiza la equidad.

5.- Que se controle el dinero público y se garanticen las necesidades de los centros públicos .

## A LA COMUNIDAD ESCOLAR Y A LA SOCIEDAD VASCA

Porque según las encuestas que en el 2002 y el 2004 se realizaron desde la Presidencia del Parlamento Vasco, la Escuela Pública es la mejor valorada, y porque en el caso de que ello fuera posible el 66% elegiría la escuela Pública Vasca.

Asimismo, queremos mostrar nuestro agradecimiento a todos los agentes de la comunidad escolar porque gracias a su trabajo están reforzando y mejorando la Escuela Pública Vasca.

En la misma línea, hacemos una llamada:

- A la sociedad en su conjunto para que impulse la enseñanza pública y para que refuerce las comunidades educativas.
- A las comunidades educativas para que participen en las escuelas impulsando la mejora en todos los ámbitos, desde el nivel pedagógico hasta el de gestión.
- A los centros escolares, para que creen redes educativas (tal como se está haciendo en algunas zonas, creando puentes de comunicación entre las diversas etapas,...)
- A la enseñanza pública, para que vaya construyendo su futuro. ♣

## HEZKUNTZAKO SAIL BERRIARI ESKAERAK

**1.- Irakaskuntza Publikoko hezkuntza eragileekin batera elkarlanean aritzea.**

**2.- Behar guztiak asetzeko plangintza lan osoa egitea, etorkizunera begirako lana alegia: eskola berriak, azpiegiturak, eskaini beharreko zerbitzuak, eta baita euskalduntze prozesuaren, curriculumaren garapenaren eta ikastetxearen autonomiaren ondorioz sortzen diren zerbitzuak ere.**

**3.- 0-3 urte bitarteko zikloari lehentasuna emango dion eta 0-18 ibilbideak ziurtatuko dituen plangintza lana.**

**4.- Irakaskuntza Publikoak behar adina baliabide izatea, eta ikastetxeentzako aurrekontuko diru kopurua handitzea. Euskal Eskola Publikoa gurea dela aitortzea, zuzentasuna bermatzen duen bakarra.**

**5.- Diru publikoa kontrolatzea eta ikastetxe publikoetako beharrak bermatzea.**





# AGURAIN, FESTAZ BLAI

**ARABAKO UDALERRI HORRETAN EGIN DA, AURTEN, EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN FESTA. BESTE BEHIN ERE, JOLASAK ETA ALDARRIKAPENAK BAT EGIN ZUTEN, AGURAINGO BIZTANLEEN KOPURUA HOGEI BIDER HANDIAGOA EGIN ZEN EGUN BATEAN**









# EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN FESTA







Aurreko ekainaren 5ean Euskal Eskola Publikoaren XIV. Jaia ospatu genuen. Dakizuenez, Euskal Herriko ikastetxe publikoetako gurasoek antolatzen dugu, urtero, jai hori, Euskal Eskola Publikoa aldarrikatzeko, euskal eskola publiko kalitatezko, euskaldun, integratzaile eta parte-hartzean oinarritua aldarrikatzeko, hain zuzen.

Milaka lagun elkartu ziren Agurainen –orain hiru urte ere hantxe egin zen Jaia–, “Mugak gainditu, bideak egin” goiburuak erakarrita, eta, bisitari oldearen ondorioz, udalerri horretako herritarren kopurua ohi dena halako hogei izan zen ordu batzuetan.

Goiztiarrenek Santa Maria plazan bat egin zuten, goizeko hamaiketan. Jarduneko lehendakari Juan Jose Ibarretxe eta beste agintari batzuk bertan zirela, festari hasiera emango zion ohorezko aurreskua ikusi zuten plazan.

Hortik aurrera, aldarrikapena eta jai giroa elkarri eskutik helduta ibili ziren egun osoan, Agurainen antolatutako sei guneetan. Herri kirolak, Agurain eta Araiako danborradak, gaztelu puzgarriak, Kiki Koko eta Moko pailazoen kale emanaldia, Patha Rheiren antzerkia... denen gustagarri izan ziren. Ausartenek tirolinan jauzi egiteko aukera izan zuten, baita eskalan gora eta behera ibiltzeko ere; baina Aguraingo harresi inguruetan bildu zen jende gehien, postu ibiltariak ikustera, edo talo ederrak dastatzera. ♣



# EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN FESTA

## Aldarrikapenerako tarte bat

Aurreko ekitaldietan bezalaxe, Jaiaren helburua euskal eskola publikoari halako ukitu ludiko eta jai girokoa ematea da, baina ez dira alde batera uzten lau haizetara zabaldu nahi ditugun hainbat aldarrikapen, hezkuntza komunitateko beste sektoreek ere bere egiten dizutenak.

Zehazki, ikasleak euskaldunteko hizkuntz eredu bakarra sortzea, udalek eta Eusko Jaurlaritzak akordioak lortzeko zain egon gabe 0-3 urte bitarteko tartea eskaini ahal izatea, eskola mapa gure herri eta hirien beharren arabera eguneratzea, ikasmaterialen doakotasuna eta familiek eskola ingurunean parte hartzea dira gaur egun euskal eskola publikoak dituen  erronka nagusiak.

## ALGO MAS QUE UNA FIESTA

**El pasado día 5 de junio celebramos la XIV edición de la Fiesta de la Escuela Pública Vasca, fiesta que como ya sabéis organizamos anualmente los padres y madres de los centros educativos públicos de Euskal Herria con el objetivo de reivindicar una Escuela Pública Vasca de calidad, euskaldún, integradora y participativa.**

**Miles de personas se acercaron a la localidad alavesa de Agurain -que ya había recibido la Fiesta tres años atrás- bajo el lema “Mugak gainditzuz, bideak egin”, provocando que su población se multiplicara por veinte durante unas horas.**

**La reivindicación se mezcló en todo momento con el ambiente festivo que estuvo repartido en seis espacios diferenciados de la villa aguraindarra. El deporte rural, las tamborradas de Agurain y Araia, los castillos hinchables, las actuaciones callejereas de los payasos Kiki Koko Moko, el teatro de Patha Rhei hicieron las delicias de todos. Los más atrevidos no dudaron en lanzarse en tirolina y andar por una improviasada escala, mientras que la mayoría de la gente rondaba la zona amurallada de Agurain observando los puestos ambulantes o saciando el apetito con un sabroso talo.**





## ESKOLA TXIKIEN JAIA

Elgeta ere galaiz jantzi zen, ekainaren 12an, hain zuzen, Eskola Txikien Jaia zela eta.

Jaiaren goiburua ‘Eskola txikiak bizirik, herri txikiak bizirik’ izan da, eta Gipuzkoako hogeita zortzi ikastetxe elkartu ditu. Aurreko urteetan bezala, guraso, ikasle eta irakasleak bildu dira jaira, antolatutako ekintzetan elkarrekin parte hartzera.

Eguna goizeko 10etan hasi zen, agintarien ongietorriarekin. Ondoren, jolasez eta era guztietako ekintzez gozatzeko aukera izan zen. Arratsaldean, berriz, pailazoak eta Tapia eta Leturiaren emanaldia. Den-dena, nola ez, jai giroan, musika eta eskola ardatz hartuta, bi osagai horiek izan baitziren eguneko elementu bateratzaileak. ♣



# 36 gazte saritu dira norbegak eta Coca-Colak antolatutako euskarazko idazlanen bigarren lehiaketan

***Ekainaren 2an, arratsaldeko 19,30ean, izan zen Bilboko Itsasadarra Itsas Museoan lehiaketa honen sari banaketa. Guztira 36 sari banatu ziren.***

Hego Euskal Herriko DBH 2. mailako ia 2.000 ikasle inguruk parte hartu dute Norbega S.A.k (hemengo Coca-Cola botilaratzaileak) antolatu duen Euskarazko Idazlanen Bigarren Lehiaketan. Euskara irakurketaren eta idazketaren bidez sustatzeko xedez jaio zen lehiaketa hau eta iaz baino 500 parte hartzaile gehiago izan dira aurten. Apirilaren 15ean izan zen, Bilbon eta Donostian, lehiaketaren herrialdekako fasea. Idazlanaren gaia honako hau izan zen: "Asma ezazu zure kirola".

Epaimahaiko kide Lorea Bilbao (Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko Zuzendaria), Gotzon Lobera (Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Sustatzeko Zuzendaria), Xabier Kintana (Euskaltzaindiako kidea) eta Iñaki Mendizabal (ELEA argitaletxearen ordezkaria) izan ditugu, euskal instituzioei eta kulturari lotutako pertsonak guztiak. Sailkatu guztiek sari ederrak jaso zituzten, eta irabazleak bidaia zoragarri bat egingo du Londresa eta baita ordenagailu eramangarri bat ere.

**GIPUZKOAN IKASLE HAUEK SAILKATU DIRA:**

| | | |
|---|---|---|
| Irati Salsamendi | Axular Lizeoa | Donostia |
| Libe Mendoza | Jesusen Bihotza Ikastola | Villabona |
| Ane Saenz de Zaizegui | Axular Lizeoa | Donostia |
| Imanol Urkola | Jesusen Bihotza Ikastola | Villabona |
| Lierni Munduate | Ekintza Ikastola | Donostia |
| Beñat de Alba | IES Toki Alai | Irun |
| Ana Lupe Iridoy | IES Talaia | Hondarribia |
| Maddi Goitia | Eskibel Ikastetxea | Donostia |
| Laura Ruiz | Ekintza Ikastola | Donosita |
| Oihane Mitxelena | Eskibel Ikastetxea | Donostia |
| Laura Narváez | Axular Lizeoa | Donostia |
| Irati Murua | IES Oianguren | Ordizia |



**EUSKARAZKO IDAZLANEN BIGARREN LEHIAKETAKO AZKEN SARITUAK HAUEK IZAN DIRA:**

| | | |
|---|---|---|
| 1. Jaione Saez | San Fermin Ikastola | Iruñea |
| 2. Irati Salsamendi | Axular Lizeoa | Donostia |
| 3. Itxaso Gallastegi | Lauaxeta Ikastola | Zornotza |
| 4. Jone Eizmendi | Laudio Ikastola | Laudio |
| 5. Libe Mendoza | Jesusen Bihotza Ikastola | Villabona |
| 6. Ane Salvador | Ibaigane Ikastetxea | Bilbo |

Sari banaketan Patxi Goenaga (Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburu ordea) eta Belén Greaves (Bizkaiko Kultura foru diputatua) izan dira, besteak beste.




# Guarderías en pie de guerra

LOS PADRES Y MADRES DE LOS CUATRO CENTROS DE DONOSTIA AFECTADOS POR LA DECISIÓN DE LAS ADMINISTRACIONES de no haber incluido en el reparto de competencias el servicio de comedor-cocina de los centros de cero a tres años se han movilizado para que se subsane esta tremenda deficiencia. En estas edades, la alimentación no es sólo un momento del día donde se recuperan fuerzas para seguir trabajando, sino que debe suponer un equilibrado aporte alimenticio, adecuado a la etapa e incluido dentro del currículo escolar.

# AERÓBIC EN OLETA-ARRI BERRI



**A lo largo de este curso escolar veinticuatro madres de Oleta-Arri Berri han asistido a clases de aeróbic organizadas por la propia asociación de madres y padres, en el Polideportivo de Altza. El curso que viene tienen intención de repetir experiencia ya que cuentan de nuevo con un gran número de interesadas en practicar este deporte.**

# BODAS DE PLATA

**Murumendi de Beasain, Lizardi de Zarautz y Larraña de Oñati,** entre otros, celebran este curso las bodas de plata del centro. Por este motivo durante este curso escolar han llevado a cabo varias actividades de todo tipo tales como teatros, exposiciones fotográficas y de pintura o presentaciones de libros. Este último es el caso del colegio Murumendi de Beasain que sacó a la luz hace unos días un libro especial en el que se recogen los trabajos actuales del alumnado de diferentes ciclos, además de artículos de personas que guardan, o han guardado, relación con el colegio en diferentes aspectos.
El Instituto Larraña logró juntar en un emotivo homenaje a los directores y directoras que habían pasado por el centro, así como representantes del profesorado y de las asociaciones de padres y madres, a todos ellos les entregó una placa conmemorativa.
El Instituto Lizardi de Zarautz también reunió a antiguos y actuales representantes de su comunidad escolar en un acto que contó con la presencia de una hermana del escritor y poeta Xavier Lizardi, a quien debe el nombre el centro y que presenció cómo se colocaba un busto de su hermano a la entrada del instituto.


LIZARDI - Zarautz


LARRAÑA - Oñati


Murumendi - Beasain

# SALBATORE MITXELENA
## literatura lehiaketako sariak

Zarauzko Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatzen duen Literatura Lehiaketaren XXIII. edizioa izan da aurtengoa. Orokieta ikastetxeko ikasleek zenbait sari eskuratu dituzte, hainbat sailetan. Liburuaren Eguna dela eta, aurten hainbat saio antolatu ditugu Orokietan ipuin kontalarien inguruan. Saio horiek, ordea, berezitasun bat zuten: atzerriko hizkuntzetan kontatzen ziren ipuinak, baina ez edozein hizkuntzatan, ikasleen familien hizkuntzatan baizik.
Malika Zerrad-ek, esate baterako, arabieraz kontatu zituen ipuinak Riham bere alabaren, eta Chaid, Abderraman eta Juliaren laguntzaz. Ondoren, lau urteko haurrentzat, beste narrazio bat antolatu zen, alemanez.



**A1 SAILA, IPUINA**

1. SARIA: Ander Buenetxea Garcia. — "Baleen istorioa"
2. SARIA: Jone Aldalur Gandiaga — "Amona mantalgorri koloreko larrosak"

**A2 SAILA, IPUINA**

2. SARIA: Ane Lazkano Ostolaza — "Xagua eta tranpa"

**B SAILA, IPUINA**

1. SARIA: Julen Ucin Gurrutxaga — "Handik hona"

**B SAILA, POESIA**

2. SARIA: Amaia Aranbarri Oiarzabal — "Ilargia"






# Gurasoen formazioa
## "KARMENGO AMA"

**BADIRA 8 URTE GURE ESKOLA "IKAS KOMUNITATE" BIHURTZEKO PROZESUAN HASI GINELA. HELBURU NAGUSITZAT HONAKO HAU HARTU GENUEN: DESBERDINTASUNAK GAINDITZEA, IKASLE GUZTIEK KALITATEZKO HEZKUNTZA IZAN DEZATEN.**

Helburu hori lortzeko ezinbestekoa zen eskola zabaltzea, eta ingurune hurbiletik hastea: familia, auzoko hezkuntza eragileak eta elkarteak. Eskola ireki egin behar zen denon ekarpenekin aberasteko.

Familiak ezinbestekoak dira umeek ikasketetan eta gizartean bizitzeko jarraibideetan aurrera egin dezaten. Horregatik, horien partaidetza bermatzeko, hainbat ekintza antolatu genituen, eta horietako bat GURASOEN FORMAZIOA izan zen.

Urteak daramatzagu gurasoei beren eskaera, behar eta gustuen araberako ikastaroak eskaintzen. Ikastaro horiek eskola orduetan antolatzen dira, eskolan bertan, oso eroso egiten baitzaie umeak gelan utzi eta beste gela batean sartzea ikastera. Horrez gainera, konturatu gara seme-alabak asko motibatzen, aberasten... direla, eta autoestimua handitzen zaiela gurasoak eskolatik gertu, era aktiboan parte hartzen... ikusten dituztenean.

Ikasturte honetan, ikastaro hauek antolatu ditugu gurasoen formazioa programaren barruan:

- Eskulanak.
- Informatika.
- Sorospena.
- Haur kantak eta jolasak.
- Osasuna eta haurrenheziketa.
- Euskara.

Ikastaro horietan parte hartu duten guraso gehienen balorazioa oso positiboa izan da, ikasteaz gain, ondo pasatzeko eta beraien arteko harremanak sendotzeko aukera paregabea izan baitute.



## GOIESKOLAKO KIROL TOPAKETA

**MAIATZAREN 20AN, ESKORIATZAN, IV. KIROL TOPAKETAK OSPATU ZIREN.**
Bertan, Goieskola eskoletako 4. mailako ikasleek hartu zuten parte.
Topaketa hauen helburuak hauek lirateke:
- Joku tradizionalak ezagutzea.
- Debagoienako eskola publikoetako ikasleak elkar ezagutzea.
- Eta ondo pasatzea.

Urtero bailarako eskola batean ospatzen da.

## Educación para la paz en OIANGUREN

**EL INSTITUTO OIANGUREN DE ORDIZIA HA PARTICIPADO recientemente en las I Jornadas de Intercambio de Buenas Prácticas en la Educación para la Convivencia y la Paz que se celebraron en el Palacio Europa de Gasteiz. El proyecto educativo de Oianguren fue presentado por Jaione Bengoetxea y Josean Pinedo, profesora de inglés y orientador, respectivamente, ambos miembros de la Comisión de Convivencia del centro.**





## ELIZATXO IKASTOLA, gimnastikako infantil mailako txapeldun

Hernaniko gimnastikalariak goreneko mailan ibili dira gimnastika erritmikoko Gipuzkoako azken txapelketan. Bereziki aipatzekoa izan da Elizatxo ikastolako neskek infantil mailan egindako lana, emaitzak onak izan baitituzte bakarkako nahiz taldekako sailetan.
Elizatxo ikastolaren taldekako saileko garaipena Lara Peman, Karen Juanes, Amaia Agirre, Idoia Arregi eta Ainhoa Unzuetaren eskutik etorri zen. Alebin mailan ere ongi ibili ziren, eta banakako sailean Ainhoa Gaspar hirugarren geldiitu zen. Infantil mailan, Elizatxok taldekako sailean irabazteaz gainera, aipatzekoa izan zen Amaia Agirre laugarren eta Idoia Arregi bosgarren gelditu izana. Kadete mailan, berriz, Gorane Iturralde bigarren gelditu zen.



**Elizatxoko ikaslea da, orobat, baina BHIkoa, Ion Apezetxea Ruiz, honako garaipen hauek lortu dituena:**

JUVENIL MAILAN :
Irabazitako txapelketak:
- Sopela (maiatzean )
- Lezama (urtarrilean )
- Laudio (otsailean )
- Egia (azaroan)

AFIZIONATU MAILAN
- Bergaran ( maiatzean ) txapeldun

Orain, Espainiako Txapelketa jokatuko du Logroñon.

# Día del libro en ALTZA IKASTETXEA

## CON MOTIVO DEL DÍA DEL LIBRO EL CENTRO ALTZATARRA ORGANIZÓ UNA EXPOSICIÓN ESPECIAL








Los de tercero de primaria, y en homenaje al El Quijote que celebra su cuarto centenario, llevaron a cabo toda una serie de actividades centradas en el dicho libro: teatros, lecturas del libro, exposiciones, e incluso hicieron marcadores para lectura. Los del ciclo de infantil, sin embargo, hicieron sus dibujos basados en los cuentos clásicos tales como La casita de chocolate o El soldadito de plomo.



# Proyecto “GIPUZKOAN ZEHAR”

**El pasado mes de abril se dio por finalizado el proyecto telemático “Gipuzkoan zehar” entre el centro Beraun Berri de Errenteria y la Ikastola Langile de Hernani.**

**El proyecto pretende, por un lado, conocer los diferentes pueblos de Gipuzkoa y, por otro, reforzar el uso de las nuevas tecnologías mediante la comunicación vía correo electrónico entre el alumnado de los centros participantes.**

**Hay que destacar lo positivo del entramado de relaciones afectivas que surge entre el alumnado, las relaciones pedagógicas y cooperativas que se establecen entre el profesorado de los dos centros implicados a lo largo de la planificación y desarrollo de la actividad, la motivación que surge al abordar el análisis de cada pueblo con la finalidad práctica de darlo a conocer a otros y, la nueva sensibilidad que se va generando respecto a la utilidad que va teniendo el ordenador en las aulas, donde además de ser un instrumento de aprendizaje va siendo también un medio para fomentar las relaciones y la comunicación interpersonal.**

# GAINZURI ETA AGENDA 21

**Aurreko apirilean, Eskolako Agenda 21 ekimenaren baitan, mahai-ingurua egin zuten Zumarragako eta Urretxuko ikasleek eta alkateek. Mahai-inguru horretan, urari buruz egindako ikerketaren ondorioak plazaratu zituzten ikasleek, eta alkateek gai horri jarraipena egiteko eta berriro elkartzeko hitza eman zuten. Hala, Zumarragako Ur eta saneamendu batzordeak bilera berezia egin zuen, eta hogei bat gaztetxok parte hartu zuten bertan, Gain Zuri eta Jose Mari Iparragirre ikastetxeen ordezkari gisa, besteak beste.**



# Aste berdea, DOMINGO AGIRRE IKASTETXEAN

**HITZALDIAK, ANTZERKIA, MENDI IRTEERA DIDAKTIKOAK, BERTSOAK, MUSIKA... HORIEK IZAN DIRA, LEGAZPIKO DOMINGO AGIRRE IKASTETXEAN BERRIKI EGIN DUTEN ASTE BERDEKO PROTAGONISTAK.**



Horiek eta, jakina, irakasle, ikasle eta gurasoak ere bai. Aste horretarako antolatu zuten egitarauko lehen ekintza zaborrari buruzko hitzaldia izan zen; ikastetxeko 6. mailako ikasleek 4. eta 5. mailetako ikasleei eman zieten hitzaldi hori lehenik, eta gero kaleko jendearentzat egin zuten. Ondoren, 'Amona honekin kontuz!' antzerki lana plazaratu zuten, eta mendi irteera didaktikoa egin zuten gero.

Amaitzeko, Ingurumen Jaialdia antolatu zuten. Urteak dira ikastetxe horretan zaborraren auziari buruzko kezka dutela; hala, aurreko ikasturtean lanketa berezia egin zuten gai horretaz, Eskolako Agenda 21 ekimenaren proposamenari jarraituz. Ikasleek Berzik birziklatze enpresara, Sasietako plantara eta abarretara ikustaldiak egin dituzte, eta ikustaldi horietatik ateratako ondorioekin, eta gelan ikasitakoarekin, hitzaldi interesgarria prestatu zuten. Hitzaldia hilaren 6an eman zuten ikastetxeko ekitaldi aretoan.

# LIZARTZA ETA BERAUN BERRI

## AFEKTIBITATEAk ikasle arteko KOMUNIKAZIOARI ERAGITEN DIO eta eskola arteko harremana bultzatzen du



Aurreko ostiralean "Mimi" ardiak eta "Motz" txakurrak (Beraun Berri eta Lizartzako pelutxe bidaiariak) Tolosan aurkitu zuten norbere gelara itzultzeko tokia. Trenetik jaitsi zirenean, poza eta hunkigarritasuna izan ziren nagusi. Hura poza!, berriro gurekin! esaten zuten txikiek.

Afektibitatea dela medio, bi ikastetxetako ikasleen komunikazioa e-postaz sakontzeko aukera ematen du "PELUTXE" proiektu telematikoak.

Ikasturte hasieran gela bakoitzean pelutxe bat erosten da. Horiekiko afektibitatea bultzatu ondoren (etxera eraman, eskolako ikasketa prozesuaren partaide izan, jaietako edo ekintza osagarrietako lagun izan), bidaia egin behar du pelutxeak, eta denboralditxo batez beste ikastetxe bateko ikasleekin egon beharko du. Bien bitartean, bigarren ikastetxekoek pelutxearekin igarotzen dituzten uneen berri emango diete pelutxea erosi duten ikasleei.

Eskolatik kanpo dagoen bitartean, jakin-minez daude ikasleak: nola ote dago, zertan arituko ote da, zer-nolako ospakizunetan parte hartuko ote du, gogoratuko al da gurekin, ondo moldatzen ote da?... Bide batez, hango pelutxea gure ikastetxean ondo sentitzen den, disfrutatzen ari den, zer-nolako lanak egiten dituen, ikasten ari garen... kontatzeko irrikaz gaude.

Aukera ederra da ikastetxeetako ikasleek elkar ezagutu dezaten, egiten dugunaren berri izan dezaten…å




Infórmate aquí o en/Galdetu hemen edo:
www.jangelasolidaria.com
943 40 47 40

jangela solidaria

medicusmundi

## Colabora tú también/Parte hartu zeuk ere

Si quieres colaborar en la alimentación de 500 niños huérfanos de Wukro, envía este cupón. ¡Gracias por tu solidaridad!

Izena-Abizenak/Nombre-Apellidos: ..................................................

Helbidea/Domicilio: ..................................................

P.K./C.Postal: .................... Herria/Población: ..................................................

Tel.: .................... e-mail: .................... N.A.N./nº D.N.I.: ....................

Bakarra/Única aportación ☐ Kopurua/Cantidad ____________ €
Hilabetekoa/Mensual ☐ Kontu Korrentea/ nº de Cuenta Corriente ☐☐☐☐ ☐☐☐☐ ☐☐ ☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐
Hiruhilabetekoa/Trimestral ☐
Seihilabetekoa/Semestral ☐ Desgrabazio fiskalerako ziurtagiria jaso nahi duzu?
Urtekoa/Anual ☐ ¿Quieres recibir justificante para la desgravación fiscal? **Bai/Si** ☐ **Ez/No** ☐

Bazkide izatea ez ba duzu nahi, baina diruematea egin nahi baduzu gure web-orrian egin dezakezu:
Si no deseas asociarte pero quieres dar un donativo puedes hacerlo a través de nuestra web: www.jangelasolidaria.com

Edo kontu korrente hauetan/ O en las siguientes cuentas corrientes: JANGELA SOLIDARIA EUSKADIKO KUTXA: **3035 0060 41 0600600006** KUTXA: **2101 0001 19 0010969640**

Edo 943 404 740 ra deitu eta informazio guztia emango dizugu./ O llama al teléfono 943 404 740 y te informaremos.

Las personas interesadas tienen el derecho a conocer, rectificar, cancelar u oponerse al tratamiento de la información que les concierne y autorizan a que pase a formar parte del fichero **medicus**mundi gipuzkoa (Serapio Mujika, 33, behea. 20016 DONOSTIA. Tel.: 943 404 740. Fax: 943 404 300. E-mail: gipuzkoa@medicusmundi.es) ante el cual podrán ejercitar sus derechos y a que sea utilizada para mantener la relación comercial y recibir información de nuestra organización. Si no desea recibir información de **medicus**mundi gipuzkoa señale con una x en esta casilla. ☐ - Ley orgánica 15/1999 de 13 de diciembre de Protección de Datos.

# miramon

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

## DONOSTIAN

## HONA HEMEN ZIENTZIA AURKITZEKO FORMULA:



**[jakin + jolas]$^2$ = miramon**

*__Kutxa__k, bere Gizarte-Ekintzaren bidez, zientzia jolasgarriago bihurtzeko formula zehatza aurkitu du, __Miramon.Zientziaren KutxaGunea__.*

*Ingurunean duguna hainbat sistema elkarreragileren bitartez uler dezagun asmatutako gune bat. Hemen ukitu, behatu, ulertu, gozatu egin baitezakezu. Zatoz eta begira egiozu munduari beste begirada batez.*

- *156 esperimentu elkarreragile.*
- *10 gaikako erakusketa iraunkor.*
- *Planetarioa.*
- *Behatoki astronomikoa.*
- *Aldi baterako erakusketak.*
- *Ikastetxeetarako hezkuntza-programak*
- *Programa didaktikoak*
- *Aparkalekua eta bertaratzeko bide erosoak.*

***Mikeletegi Pasealekua 45. DONOSTIA***

| | | |
|---|---|---|
| Urriaren 1etik maiatzaren 31 arte: | Asteartetik larunbatera | 10 - 19 h. |
| | Igande eta jaiegunetan | 11 - 19 h. |
| Ekainaren 1etik irailaren 30a arte: | Asteartetik larunbatera | 10 - 20 h. |
| | Igande eta jaiegunetan | 11 - 20 h. |

Itxita: Astelehenetan, Urtarrilaren 1an, Urtarrilaren 20an eta Abenduaren 25ean

www.begira.com

kutxa
gizarte ekintza